

Euskal AEn, jaiotzak % 0,1 gutxitu ziren 2023ko 4. hiruhilekoan

2023an, jaiotza-kopurua % 1,6 jaitsi zen

2023ko laugarren hiruhilekoan, Euskal AEn 3.465 haur jaio ziren, aurreko urteko aldi berean baino %0,1 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Azpimarratzekoa da beherakada nabarmenagoa izan dela Bizkaian: 1.645 jaiotza izan dira, aurreko urtean baino %5,6 gutxiag. Araban eta Gipuzkoan, berriz, jaiotzak gehitu egin dira: 593 eta 1.227 izan dira, hurrenez hurren; horrek esan nahi du Araban %7 eta Gipuzkoan % 4,5 hazi direla.

2023ko laugarren hiruhilekoan Euskal AEn ama izan ziren emakumeen % 33,5 atzerritarrek ziren, 2022ko aldi bereko % 30,8 baino gehiago. Araba ehuneko horretatik gora kokatu zen, % 41,9ra iritsi baitzen, eta ondoren Gipuzkoa eta Bizkaia, % 33,5eko eta % 30,5eko ehunekoekin, hurrenez hurren.

Amen ia % 80k 30 urte baino gehiago zituen

Jaiotzak adinaren arabera banatuz gero, 35-39 urteko amen ehunekoa % 33,4 da, 30-34 urteko amena % 33,4, eta 25-29 urteko taldearen ekarpena % 14,7 izan zen. 40 urtetik gorako amak (% 11,4) gehiago izan ziren 25 urtetik beherakoak baino (% 7,1).

Amatasunaren adina ere aldatu egiten da nazionalitatea kontuan hartuz gero. Izan ere, ama atzerritarren batez besteko adina 30,9 urtekoa izan zen, eta nazionalitate espainiarreko amena, berriz, 34,6 urtekoa.

Ezkondu gabeko amek izandako haurren ehunekoa % 51,2 izan zen

2023ko laugarren hiruhilekoan ezkontzaz kanpoko jaiotzak guztizkoaren % 51,2 izan ziren, 2022ko aldi berean baino 0,3 puntu gutxiago.

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, erdiak baino gehiago, 1.780 (% 51,4), lehenengo seme-alabak izan ziren; 1.228 (% 35,4) berriz erditu ziren; hirugarren eta ondorengo seme-alabak 457 izan ziren (% 13,2).

2023ko balantzea

2023. urte osoa hartuz gero, jaiotzen behin-behineko kopurua 13.421 izan zen, hau da, 215 (% -1,6) gutxiago, 2022ko datuekin alderatuta. Beherakada hori Bizkaian eta Araban gertatu zen; Bizkaian % 3,1ekoa izan zen (214 jaiotza gutxiago), Araban % 2,3koa (53 jaiotza gutxiago) eta Gipuzkoan % 1,2koa (52 jaiotza gehiago).

Euskal AEn bizirik jaioak, amaren bizilekuaren lurralde historikoaren, sexuaren, adinaren, egoera zibilaren eta nazionalitatearen, hurrenkeraren eta jaiotza-hilabetearen arabera (1). 2023/IV

	Egungo hiruhilekoa (IV/2023)		Aurreko hiruhilekoa (IV/2023)			Aurreko urteko hiruhileko bera (IV/2023)		
	KOP	%	KOP	%	Gehikuntza	KOP	%	Gehikuntza
Euskal AE	3.465	100,0	3.547	100,0	-2,3	3.470	100,0	-0,1
Araba / Álava	593	17,1	571	16,1	3,9	554	16,0	7,0
Bizkaia	1.645	47,5	1.801	50,8	-8,7	1.742	50,2	-5,6
Gipuzkoa	1.227	35,4	1.175	33,1	4,4	1.174	33,8	4,5
Sexua								
Mutilak	1.807	52,2	1.805	50,9	0,1	1.781	51,3	1,5
Neskak	1.658	47,8	1.742	49,1	-4,8	1.689	48,7	-1,8
AMAREN ADINA								
<= 24 urte	247	7,1	249	7,0	-0,8	257	7,4	-3,9
25 - 29 urte	508	14,7	476	13,4	6,7	460	13,3	10,4
30 - 34 urte	1.157	33,4	1.278	36,0	-9,5	1.136	32,7	1,8
35 - 39 urte	1.159	33,4	1.160	32,7	-0,1	1.175	33,9	-1,4
>= 40 urte	394	11,4	384	10,8	2,6	442	12,7	-10,9
Amaren egoera zibila								
Ezkondua	1.690	48,8	1.770	49,9	-4,5	1.683	48,5	0,4
Ezkon gabea	1.775	51,2	1.777	50,1	-0,1	1.787	51,5	-0,7
Amaren nazionalitatea								
Espainiarra	2.303	66,5	2.425	68,4	-5,0	2.402	69,2	-4,1
Atzerrikoa	1.162	33,5	1.122	31,6	3,6	1.068	30,8	8,8
Jaiotza-ordena								
Lehenengoa	1.780	51,4	1.829	51,6	-2,7	1.750	50,4	1,7
Bigarrena	1.228	35,4	1.214	34,2	1,2	1.238	35,7	-0,8
Hirugarrena edo gehiago	457	13,2	504	14,2	-9,3	482	13,9	-5,2
Jaiotza-hilabetea								
Urria	1.251	36,1				1.162	33,5	7,7
Azaroa	1.107	31,9				1.169	33,7	-5,3
Abendua	1.107	31,9				1.139	32,8	-2,8


(1) Hiruhileko honetako datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira

Data 2024ko Maiatzaren 6a

Iturria: Eustat. Jaiotzen Estatistika

Euskal AEn erregistratuta dauden eta Euskal AEn bizi den ama batengandik bizirik jaioak

Hilerokoa



Iturria: EUSTAT. Jaiotzen Estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62